

Euskara zenbateraino ikasten dute etxetik erdaldun direnek?

EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean abian den ikerketa baten berri eman digu sailkide Ibon Manterolak. Lehen emaitzen arabera, etxetik erdaldun izanda euskaraz eskolatzen diren ikasleek etxetik euskaldun diren ikasleen pareko garapena egiten dute euskaraz.

IBON MANTEROLA GARATE

Irudia: Zuriñe Intxausti

EZ DA INONDIK ERE BERRIA baieztatzea etxetik erdaldun diren hurrek eskolan euskara ikasten dutela. Munduko beste hainbat eta hainbat txokotan bezala, Euskal Herrian ere erakutsi da haurrak etxekoa ez duten beste hizkuntza batean eskolatzeak eskolakoa ez ezik etxeko hizkuntza ere ikastea dakarrela. Eta hau guztia maila akademikoan ere onurak lortuz. Murgilketa bidezko irakaskuntza deitzen denaren lorpenak dira hauek.

Hain zuzen ere, etxetik gaztelaniadunak izanik D ereduan eskolatuta euskara ikasten duten haurren euskararen eta gaztelaniaren garapena aztertzeari ekin genion 2002an Itziar Idiazabalek zuzentzen duen EHUko Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera ikertaldean (www.elebilab.com). Ikertaldeak hogeitatu urteko ikerketa-eskarmentua dauka haurtzaroko elebitasunaren esparruan. Doktorego tesi eta argitalpen zientifiko ugari jorratu du etxeko testuinguruan gertatzen den euskararen jabekuntza goiztiarraren gaia, haur euskaldun elebazarren eta euskara-gaztelania elebidunen hizkuntza garapena ikertuz.

2002 urtetik aurrera, berriz, eskolaren testuinguruan gertatzen den euskararen ikaskuntza ikertzeari ekin diogu. Etxetik erdaldun izanik eskolan bizpahiru urterekin euskara

ikasten hasten diren haurrengan euskararen (eta gaztelaniaren) garapena dugu ikergai nagusia. Hona hemen ikerketa esparru berriaren ikerketa-galdera nagusi batzuk: batetik, nolakoa da etxetik erdaldun elebazar izanda (gaztelania H1) eta inguru soziolinguistikoa nagusiki erdalduna izanik, euskaraz eskolatzen diren haurren elebitasunaren garapena? Alegia, zein garapen dauka haur hauengana euskara bigarren hizkuntzak? Gaztelania lehen hizkuntzak daukan antzeko garapena al du euskarak? Eta bi hizkuntzetan lortzen duten maila antzekoa al da? Eta bestetik, euskara eskolan ikasten duten haur hauek etxetik euskaldun diren haurren antzeko garapena lortzen al dute?

Ikerketa-galdera hauen erantzunak bilatzeko datuak bi ikasle talde-tatik hartu ditugu. Bata, etxetik erdaldun izanik euskara eskolan bizpahiru urterekin ikasten hasitako Lizarrako Ikastolako (Nafarroa) ikasleek osatzen dute. Bizi diren inguruan erdara da gizarteko hizkuntza nagusia eta euskararen eza-gutza eta erabilera, aldiz, oso xumea da. Pentsa liteke eskola dela euskara nagusi den esparru sozial bakarra. Beste taldea, berriz, euskara etxean ikasitako Zumaiaiko (Gipuzkoa) Maria eta Jose Ikastetxeko ikasleek osatzen dute (eskerrik asko bi ikas-

tetxeetako zuzendari, irakasle, ikasle eta gurasoei eskainitako laguntzagaririk!). H1 taldearen inguru soziala nahikoa euskalduna dela kontuan hartuta, baieztatu liteke gure ikerketak euskararen ikaskuntza gertatzen den bi egoera soziolinguistikoa ia kontrajarri konparatzen dituela.

Nolako datuak bildu?

Ikasleen hizkuntza ekoizpenak biltzeko erabilitako metodologia dela eta, ikasleei ahozko ipuinak kontarazteko dispositibo bat sortu dugu. Heldu baten ahotik aurrez entzundako ipuin bat ahoz birkontatzeko eskatzen zaie hurrei. Helduaren zein haurren kontaketa bidez grabatu, eta irizpide zehatz batzuk jarraituta, ahozko material hori guztia transkribatu egiten dugu.

Eskolan ohikoa den jarduerak bat sortu nahi izan dugu haurren ekoizpenak biltzeko. Ziurrenik, ikasgela askotan erabiltzen den egoera komunikatiboa da haurrak ipuinak kontatzen jartzearena. Baina horrez gain, hainbat zientzia esparrutan (hizkuntzalaritzan, hizkuntzaren jabekuntzan edota hizkuntzaren didaktikan) garatutako zenbait oinarri teoriko ere hartu ditugu kontuan egoera komunikatibo hori diseinatzerakoan. Oinarri horiek honela laburbil litezke: ahozko ipuin-kontakteta hizkuntzaren erabilera mota



bat da, ezaugarri eta beharrian komunikatibo-linguistiko propioak dituen. Termino teknikoago bat erabilia, ahozko ipuin-kontakteta testu-genero bat da. Genevako Unibertsitateko Bronckart, Dolz edota Schneuwly ikerlari eta adituak jarraituz, uste dugu ikasleen hizkuntza gaitasunak alderdi komunikatibotik aztertzeko paregabeko tresna direla testu-generoak. Hizkuntzaren hainbat maila aztertzea ahalbideratzen baitute testu-generoek. Esaterako, komunikazioaren maila (hizkuntzaren erabilera testuinguru komunikatiboarekin lotzen duena), eta maila gramatikala (aztergai morfosintaktikoei dagokiena). Ziurrenik, ikasleen hizkuntza gaitasuna ikuspuntu komunikatibotik aztertzeko testu-generoan oinarritutako ikerketarako metodologia hautatu izana da hemen aurkezten ari garen ikerketa honen ekarpenik handienetakoa.

Haur Hezkuntzako azken urtean (5/6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hirugarrenean (8/9 urte) bildu genituen ikasleen ahozko ipuinak, eta Lehen Hezkuntzako azken urteko (11/12 urte) datu-bilketa bukatzeaz gaude. Hara ikerketa honen beste ekarpen nagusi bat: ikasle-talde berberaren jarraipena egin izana sei urtean zehar, psikolinguistikaren

zein hizkuntzaren i(ra)kaskuntza prozesuen ikerketen esparruan oso ohikoa ez dena.

Emaita interesgarriak

Orain arte egin ditugun azterketetatik zein emaitza nabarmen litezke? Euskara bigarren hizkuntza dutenen 5 urtetik 8 urtera ikusitako garapenera mugatuko gara hemen. 5 urterekin jadanik haur gehienak gai badira ere helduaren laguntzarik gabe ipuina hasi eta buka kontaktzeko, zortzi urterekin kontaktetarako autonomia hau finkatuagoa dago.

5 eta 8 urte artean gertatzen den garapenaren beste erakusgarri bat ipuinen osotasuna da. 5 urteren aldean, 8 urterekin ipuineko pertsonaia, egoerak eta ekintzak hobeto antolatzen dituzte, ipuin osatuagoak kontatzen dituzte ikasleek. Azkenik, 5 urtekoek ez bezala, 8 urteko ikasleek ipuinetako ekintzak kontatze hutsa baino gehiago egiten dutela ikusi dugu. 5 urterekin ekintzak bere horretan (eta aditza soilik erabiliz) bakarrik kontatzeko joera nagusitzen den bitartean, 8 urterekin ikasleek ipuinetako ekintzak baloratu edo iruzkindu egiten dituzte eta pertsonaiaien egoera psikologikoak ere txertatzen dituzte. Ipuin-kontaktetaren dimentsio hauek (eta beste batzuek)

8 urterekin 5ekin baino gehiago agertu izanak erakusten du ipuin-kontaktetarako testu-genero modura dauzkan beharrianak hobeto menderatzen dituztela adinean aurrera egin ahala. Labur esanda, euskararen erabilera jakin bat (ipuin-kontakteta) menderatzeko prozesuan aurrera egin dutela, euskara bigarren hizkuntza izanda, gainera.

Emaitza zehatz hauetatik harata, orain arte gure lanetan ondorioztatu ahal izan dugu, besteak beste, etxetik erdaldun izanik euskaraz eskolatu diren ikasleengan euskararen garapen argia dagoela 5 eta 8 urte artean. Eta hau bezain interesgarria dena: garapen hori euskara etxean ikasi duten ikasleen garapenerarekin pareagarria dela, bi taldeen artean ezberdintasunak sumatzen diren arren.

Bereziki azpimarragarria deritzogu euskararen garapena hizkuntzaren dimentsio komunikatiboari dagokionez erakutsi izana. Hizkuntzaren dimentsio komunikatibo horixe delako, hain zuzen ere, eskolan gaur egun euskararen (eta beste hizkuntzen) irakaskuntzaren oinarri. Honexegatik, espero dugu gurea bezalako ikerketak baliagarri gertatzea euskararen irakaskuntzaz arduratzen den edonorentzat. ■

Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, ofizientegoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-arioko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legerari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."


